Urnietako Udalak, tokiko merkataritza sustatzeko duen politikan, eta urnietarrek udalerriko merkataritza-establezimenduetan erosketak egin ahal izatea bermatzeko eta errazteko, Gizarte Sustapen eta Garapen Pertsonaleko Departamentuaren aurrekontuan bi dirulaguntza lerro jasotzen ditu tokiko merkataritzarentzat.

Urnietako Udalak helburu hauek sustatu nahi ditu: emakumeen eta gizonen bizitza mugatzen duten oztopo arkitektonikoak gainditzea, sektore ahulenei arreta eskaintzea eta belaunaldien arteko bizikidetza sustatzea.

Urnietako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko apirilaren 27an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, TicketBAI fakturazio-sistema instalatzeko eta Urnietako merkataritza-establezimenduetarako irisgarritasuna hobetzeko softwarea eta hardwarea erosteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak erabaki zituen (2023SDIR0002), bai eta 2023ko maiatzaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (85. zk.) argitaratu zirenak ere. Oinarri arautzaile horietan dokumentu bakar batean jasotzen dira diruz lagun daitezkeen bi ildoak, laguntza ekonomikoen erakunde hartzaileei buruzko erreferentzia bakarra lortzeko eta espedienteak izapidetzeak dakartzan administrazio-kudeaketak errazteko.

Argitaratutako oinarri horietan jasota dago deialdi horretako eskabideak aurkezteko epea irekita dagoela oinarriak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko urriaren 31ra arte.

**12.- Propuesta de subsanación de las bases reguladoras de subvenciones al comercio. (2023SDIR0002)**

*********

**ANTECEDENTES**

El Ayuntamiento de Urnieta, en su política de fomento del comercio local y con el fin de garantizar y facilitar que los urnietarras puedan realizar sus compras en los establecimientos comerciales del municipio recoge en el presupuesto del Departamento de Promoción Social y Desarrollo Personal dos líneas de subvenciones al comercio local.

El Ayuntamiento de Urnieta quiere fomentar objetivos como la superación de las barreras arquitectónicas que limitan la vida de mujeres y hombres, la atención a los sectores más vulnerables y la promoción de la convivencia intergeneracional.

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Urnieta, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de abril de 2023, acordó, entre otros acuerdos, las bases reguladoras de las subvenciones para la instalación de un sistema de facturación TicketBAI y la adquisición de software y hardware para la mejora de la accesibilidad en los establecimientos comerciales de Urnieta (2023SDIR0002), publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 85, de 4 de mayo de 2023. En dichas bases reguladoras se recogen en un único documento las dos líneas subvencionables, con el fin de obtener una única referencia a las entidades destinatarias de las ayudas económicas y facilitar las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de los expedientes.

En dichas bases publicadas consta que el plazo de presentación de las solicitudes de dicha convocatoria está abierto desde el día siguiente a la publicación de las bases en el BOG hasta el 31 de octubre de 2023.

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Oinarri horietan jasota dago, halaber, 6. artikuloko a) atalean, eskatzailearen bete-behar bezala, *"TicketBAI" fakturazio sistemarako softwarea eta hori instalatzeko beharrezko hardwarea 2023an erosia izatea"*.

Estas bases recogen también en el apartado a) del artículo 6 como obligación a cumplir por la persona solicitante *"Que el software y el hardware necesario para su instalación sean adquiridos en 2023 para el sistema de facturación TicketBAI"*.

Izan ere, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, helburu bererako oinarri arautzaile batzuk onartu zituen, eta 4. artikuluan eskabideak aurkezteko epea 2022ko urriaren 31ra artekoa zela ezarri zen.

Sucede que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 30 de junio de 2022, aprobó unas bases reguladoras para la misma finalidad en cuyo artículo 4º se establecía un plazo de presentación de solicitudes hasta el 31 de octubre de 2022.

Horren guztiaren ondorioz, 2022ko azaroan eta abenduan TickeBAI fakturazio-sistemara egokitzeko egindako software-erosketak dirulaguntzen bi deialdietan irekitako epeetatik kanpo geratu dira, eta horrek justifikaziorik gabeko kaltea eragiten die hilabete horietan softwarea erosi zuten merkatariei.

Como consecuencia de todo ello, las compras de software realizadas para la adaptación al sistema de facturación TickeBAI durante los meses de noviembre y diciembre de 2022 han quedado excluidas de los plazos abiertos en ambas convocatorias de subvención, suponiendo este hecho un perjuicio injustificado para aquellos/as comerciantes que adquirieron el software esos meses.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Diru-laguntza hauek ematea eta instantzia emailearen (Udala) eta erakunde onuradunaren (onuradunak) arteko harremana oinarri hauek arautuko dute. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, ondorengoek xedatutakoa jarraituko da:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege-Dekretuak hura garatzeko onartutako Arautegia.
- 1997ko martxoaren 19an Urnietako Udalak onartutako Urnietako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen Ordenantza.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta emakume eta gizonen arteko benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Ikusirik 2023ko irailaren 14an Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

La concesión de estas subvenciones y la relación jurídica entre la instancia otorgante (el Ayuntamiento) y la entidad beneficiaria (los/as beneficiarios/as) se regirá por las presentes bases. En todo lo no previsto en las mismas se estará a lo dispuesto en:

- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento y municipio de Urnieta, aprobada a fecha 19 de marzo de 1997.
- Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ley Orgánica 3 /2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 14 de septiembre

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

diktamena, bozketara jo da, honako emaitzarekin:

de 2023 se procede a la votación con el siguiente resultado:

Alde 5
Urnietako Eusko Abertzaleak: 3
Urnietako Eh Bildu: 1
Urnietako Talde Sozialista: 1
Kontra 0
Abstentzioak: 0

A favor: 5
Urnietako Eusko Abertzaleak 3
Urnietako Eh Bildu: 1
Urnietako Talde Sozialista: 1
Contra: 0
Abstención: 0

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondorengoa

Por todo ello, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ERABAKI DU**

**Lehena**.- Urnietako udalerriko merkataritza-establezimenduetarako irisgarritasuna hobetzeko eta "ticketbai" fakturazio-sistema instalatzeko softwarea eta hardwarea finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileei buruzko 4. artikulua aldatzea, eskabideak aurkezteko datari dagokionez, honela: *"Eskabideak aurkezteko epea oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko urriaren 31ra arte egongo da zabalik*" eta hau jartzea: *"Eskabideak aurkezteko epea oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko azaroaren 30era arte egongo da zabalik".*

**Bigarrena.-** Aurrekarietan adierazitako hutsunea zuzentzea eta aipatutako oinarrien 6. artikuluko a) letran agertzen den testuaren ordez *"Instalatzeko behar diren softwarea eta hardwarea 2023an erostea TicketBAI fakturazio-sistemarako",* honako hau jartzea: *"instalatzeko behar diren softwarea eta hardwarea eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen erostea, 2023ko azaroaren 30a baino lehen, 2022ko azaroaren 1etik aurrera".*

**Hirugarrena**.- Zuzenketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web-orrian argitaratzea.

**Laugarrena**.- Erabaki hau Kontu-hartzailetza eta Sustapen sailei helaraztea.

**4.-Bestelakoak.**

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, Alkateak

**ACUERDO**

**Primero.-** Modificar el artículo 4 de bases reguladoras de las subvenciones para la financiación de software y hardware para la instalación del sistema de facturación "ticketbai" y para mejora de la accesibilidad a los establecimientos comerciales del municipio de Urnieta en lo relativo a la fecha de presentación de las solicitudes de la siguiente manera: donde pone *"El plazo de presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de las bases en el BOG hasta el 31 de octubre de 2023"* poner *"El plazo de presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de las bases en el BOG hasta el 30 de noviembre de 2023".*

**Segundo.-** Subsanar el vacío señalado en los antecedentes de hecho y sustituir el texto que figura en el apartado a) del artículo 6 de las citadas bases *"Que el software y el hardware necesarios para su instalación sean adquiridos en 2023 para el sistema de facturación TicketBAI"* por *"el software y el hardware necesarios para su instalación sean adquiridos con anterioridad al último día de presentación de solicitudes, 30 de noviembre de 2023 , desde el 1 de noviembre de 2022".*

**Tercero.-** Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web la subsanación.

**Cuarto.-** Dar cuenta de la misma a los departamentos de Intervención y de Promoción.

**4.-Otros.**

Y no habiendo más asuntos que tratar, el

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

bilkura bukatutzat eman du zortziak eta hogeitan. Horri buruzko akta hau egin da, eta nik, Urnietako Udaleko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Jorge Segurado Iriondo, Alkatea / Alcalde.

Alcalde da por finalizada la sesión a las ocho y veinte horas , de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, Secretaria del Ayuntamiento Urnieta, doy fe.

Idoia Arévalo Benito, Idazkaria / Secretaria.

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

## I ERANSKINA / ANEXO I

| URNIETAKO UDALAREN ETA HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTA DENDA BERRI ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA | MODIFICACION DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA Y LA ASOCIACION HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTA DENDA BERRI |
|---|---|

| | |
|---|---|
| Urnieta, 2023ko xxxxaren xa | Urnieta, xx de xxxxx de 2023 |
| **BILDURIK** | **REUNIDOS** |
| Batetik, Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Alkatea, | De una parte, Don Jorge Segurado Iriondo, Alcalde de Urnieta, |
| Bestetik, Miguel María Alberdi Iriondo jauna, adinduna. Ondorio hauetako helbidea: San Juan Kalea 15, 02-D, 20130 Urnieta; eta Nortasun Agiria: 15884377W, HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTA DENDA BERRI Elkarearen (hemendik aurrera, Elkartea) Lehendakaria. | De otra parte, Don Miguel María Alberdi Iriondo, mayor de edad, con domicilio a estos efectos en San Juan kalea 15, 02-D, 20130 Urnieta y con Documento Nacional de Identidad 15884377W, Presidente de la asociación HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTA DENDA BERRI (de aquí en adelante, la Asociación). |
| Ni, Idoya Arévalo Benito andrea, Urnietako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela. | Ante mí, Dña. Idoya Arévalo Benito, Secretaria del Ayuntamiento de Urnieta. |
| **PARTE-HARTZAILEAK** | **INTERVIENEN** |
| Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (San Juan, 5; IFK: P2007700D), Alkate gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak …………an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena. | Don Jorge Segurado Iriondo en nombre y representación del Ayuntamiento de Urnieta, con domicilio en San Juan 5, y con CIF P2007700D, interviene en su condición de Alcalde y facultado para este acto por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha ………. |
| Miguel María Alberdi Iriondo jauna, Elkartearen izenean eta ordezkari gisa. Elkartea, Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea San Juan kalea 42 20130 Urnieta da, eta bere IFK G20070314. Miguel María Alberdi Iriondo jaunak Elkartearen lehendakari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikuluaren arabera. | Don Miguel María Alberdi Iriondo, en nombre y representación de la Asociación, entidad inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, con domicilio en San Juan kalea 42 20130 Urnieta y NIF G20070314, interviene en su condición de presidente, y, en consecuencia, como representante legal de la Asociación, al amparo del artículo 15 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi. |
| Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau | Se reconocen mutuamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto, |
| **ADIERAZTEN DUTE** | **EXPONEN** |
| Elkartearen helburua erretiratuak eta | La finalidad de la Asociación es agrupar a |

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

pentsiodunak taldekatzea eta bazkideen arteko batasuna eta lankidetza sustatzea da.

todos/as los/as jubilados/as y pensionistas y fomentar la unión y cooperación entre las personas asociadas.

Urnietako Udalak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen 2021eko martxoaren 11n Elkartearekin (2021SHIT0001), 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin.

El Ayuntamiento de Urnieta firmó el 11 de Marzo de 2021 con la Asociación un convenio de colaboración (2021SHIT0001) con vigencia hasta el 31 de Diciembre de 2024.

Urnietako Udalak, hitzarmen horren bidez 21.600,00 euroko dirulaguntza ematen dio urtero, bere ohiko jarduerak garatzeko.

El Ayuntamiento de Urnieta mediante dicho convenio le otorga anualmente una subvención de 21.600,00 € para el desarrollo de sus actividades ordinarias.

Gipuzkoako erretiratuen elkarteek "AGUIJUPENS" ibilaldi-topaketa bat egiten dute urtero lurraldeko elkarteetan. Aurten, urriaren 7an, Urnietan egingo da, eta 750 pertsona inguruk parte hartzea espero da.

Las asociaciones de jubilados/as de Gipuzkoa realizan anualmente una marcha-encuentro "AGUIJUPENS" de las diferentes asociaciones del territorio, este año dicha marcha se va a celebrar en Urnieta el 7 de octubre y se espera la participación de unas 750 personas.

Aurretik adierazitakoak indarrean dagoen hitzarmena aldatzea eskatzen du, honako klausula hauen arabera:

Lo expuesto previamente requiere la modificación del convenio en vigor para introducir las siguientes:

**KLAUSULAK**

**Hitzarmen aldaketaren xedea**

Aldaketa honen xedea da eranskin bat gehitzea Urnietako Udalak eta elkarteak 2021eko martxoaren 11n sinatutako hitzarmenari.

Eranskinean zehazten da Elkartearen eta Urnietako Udalaren arteko lankidetza 2023ko urriaren 7an Urnietan "AGUIJUPENS" Gipuzkoako erretiratuen elkarteen Ibiladi-Topaketa ospatzeko.

**CLAUSULAS**

**Objeto de la modificación del convenio**

El objeto de esta modificación es incluir un anexo al convenio firmado el 11 de marzo de 2021 entre el Ayuntamiento de Urnieta y la Asociación.

En el anexo se detalla la colaboración entre la Asociación y el Ayuntamiento de Urnieta con motivo de la celebración el día 7 de octubre de 2023 en Urnieta de la Marcha-Encuentro de las asociaciones de jubilados/as de Gipuzkoa "AGUIJUPENS".

**ERANSKINA**

**Diru-laguntza**

Urnietako Udalak dirulaguntza emango dio Elkarteari 2023ko erretiratuen Ibilaldi-Topaketako jarduerak garatzeko:

- Kamisetak, mahaiak eta aulkiak erostea.
- Trikitilariak kontratatzea
- Txaranga, bertsolaria, koroa eta txistularia.
- Komun mugikorren alokairua
- Anbulantzia bat kontratatzea..

Diru laguntza honek ez ditu inbertsio gastuak

**ANEXO**

**Subvención**

El Ayuntamiento de Urnieta subvencionará a la Asociación para el desarrollo de las actividades de la Marcha-Encuentro de jubilados/as de 2023:

- Adquisición de camisetas, mesas y sillas.
- Contratación de trikitilaris
- Txaranga, bertsolari, coro y txistulari.
- Alquiler de baños móviles
- Contratar a una ambulancia.

Esta subvención no finaciará gastos de

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

finantzatuko.

Diru laguntzaren zenbatekoa 8.500€-koa izango da 1 0600.481.337.10.02 2023 (566) aurrekontu partidaren kargura.

**Ordaiketa mota**

Dirulaguntzaren lehenengo ordainketa % 75ekoa izango da, eta hitzarmenaren aldaketa sinatzean egingo da.

Gainerako % 25a elkarteak diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da, 2023ko azaroaren 30a baino lehen. Justifikazioa aurkezteko, Udalak berariaz horretarako prestatutako inprimakiak erabiliko dira.

**Hitzarmenaren aldaketa indarrean jartzea**

Aldaketa, formalizatzen den egunean jarriko da indarrean.

**Aurreko xedapenak berrestea**

Dokumentu honetan azaltzen ez den guztirako 2021eko martxoaren 11n sinatutako hitzarmena aplikatuko dela adostu da.

Eta ados daudela adierazteko, bi alderdiek hitzarmen aldaketa honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako egunean eta lekuan.

inversión.

El importe de la subvención será de 8.500 € con cargo a la partida presupuestaria 1 0600.481.337.10.02 2023 (566).

**Forma de pago**

El primer pago de la subvencion será del 75% y se realizará a la firma de la modificación del convenio.

El 25% restante se pagará una vez que la Asociación presente la justificación de la subvención antes del 30 de noviembre de 2023. La justificación se presentará utilizando los impresos específicamente preparados para ello por el Ayuntamiento.

**Entrada en vigor de la modificación**

La modificación entrará en vigor en la fecha de su formalización.

**Ratificación de las anteriores estipulaciones**

Se acuerda que para todo lo que no este expuesto en este documento, será de aplicación el convenio firmado el 11 de marzo de 2021.

Y en prueba de conformidad ambas partes firman el presente convenio por duplicado ejemplar en la fecha y lugar del encabezamiento.

Miguel María Alberdi Iriondo
HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTA DENDA BERRI

Jorge Segurado Iriondo
URNIETAKO ALKATEA

Fede ematen dut,
Idoya Arévalo Benito, Idazkaria

Doy fe,
Idoya Arévalo Benito, Secretaria

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Urnietako udala

Espte zk nº expte:
**2023ITGB0008**

## II ERANSKINA / ANEXO II

| URNIETAKO UDALAREN ETA TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA | MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA Y TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDA |
|---|---|

Urnieta, 2023ko xxxxaren xa

Urnieta, xx de xxxxx de 2023

**BILDURIK**

**REUNIDOS**

Batetik, Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Alkatea,

De una parte, Don Jorge Segurado Iriondo, Alcalde de Urnieta

Bestetik, Antton Jauregi Aranburu jauna, adinduna. Ondorio hauetako helbidea: Idiazabal kalea 7A, 01-D, 20130 Urnieta; eta Nortasun Agiria: 72434885L, TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDAren Idazkaria

De otra parte, Don Antton Jauregi Aranburu mayor de edad, con domicilio a estos efectos en en la calle Idiazabal 7A, 01-D, 20130 Urnieta y con Documento Nacional de Identidad 72434885L, Secretario de TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDA.

Ni, Idoya Arévalo Benito andrea, Urnietako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela.

Ante mí, Dña. Idoya Arévalo Benito, Secretaria del Ayuntamiento de Urnieta.

**PARTE-HARTZAILEAK**

**INTERVIENEN**

Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (San Juan, 5; IFK: P2007700D), Alkatea gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak …………an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena.

Don Jorge Segurado Iriondo en nombre y representación del Ayuntamiento de Urnieta, con domicilio en San Juan 5, y con CIF P2007700D, interviene en su condición de Alcalde y facultado para este acto por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha ……….

Antton Jauregi Aranburu jauna, TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDAren izenean eta ordezkari gisa, Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea Belandi 32, 20130 Urnieta da, eta bere IFK G20869707. Elkartearen Idazkari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikuluaren arabera.

Don Antton Jauregi Aranburu, en nombre y representación de la TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDA, entidad inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, con domicilio en Belandi kalea 32, 20130 Urnieta y NIF G20869707, interviene en su condición de Secretario, y, en consecuencia, como representante legal de la Asociación, al amparo del artículo 15 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

Se reconocen mutuamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto,

**ADIERAZTEN DUTE**

**EXPONEN**

Txanbolin Urnietako udal txistularien bandaren helburua euskal kultura eta bereziki herri musika sustatzea da.

Que la finalidad de Txanbolin Urnietako udal txistularien banda es fomentar la cultura vasca y especialmente la música popular.

Urnietako Udalak 2023ko martxoaren 8an

Que el Ayuntamiento de Urnieta firmó el 8 de

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

lankidetza-hitzarmena (2022SHIT0019) sinatu zuen TXANBOLIN Urnietako txistulari bandarekin, 2024ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo dena.

Udalak, hitzarmen horren bidez, TXANBOLIN Urnietako txistulari bandari lagata dauka kiroldegiko 4. box-a eta BOX guneko biltegia, bere jarduerak garatzeko.

Txanbolin Urnietako txistulari bandak 2023ko urriaren 20-21-22rako elkartearen 50. urteurrena ospakizuna prestatzen ari da eta ekitaldi nagusia 200 lagunek parte hartuko duten kontzertu bat izango da.

Dirulaguntza hori emateko baldintzak ezarri behar direla.

Aurretik azaldutakoak indarrean dagoen hitzarmena aldatzea eskatzen duela honako klausula hauen arabera

**KLAUSULAK**

**Hitzarmenaren aldaketaren xedea**

Aldaketa honen helburua 2023ko martxoaren 8an Urnietako Udalak eta Txanbolin Urnietako Txistulari Banda sinatutako hitzarmenari eranskin bat gehitzea da.

Eranskinean, Elkartea sortu zeneko 50. Urteurrena dela eta elkartea eta Urnietako Udalaren arteko elkarlana zehazten da.

**ERANSKINA**

**Diru-laguntza**

Urnietako Udalak 2023an diruz lagunduko du Elkartea bere 50. urteurreneko jarduerak aurrera eramateko, hurrengo ekintzak zehazki:

- Kontzertu bat
- Kalejira berezia

Diru laguntzaren zenbatekoa 13.000,00€-koa izango da 1 0410.481.334.00.20.2023 (3363) aurrekontu partidaren kargura.

Diru laguntza honek ez ditu inbertsio gastuak finantzatuko.

**Ordainketa mota**

Dirulaguntzaren lehenengo ordainketa %75ekoa izango da eta hitzarmenaren aldaketa sinatzen

marzo del 2023 con TXANBOLIN Urnietako txistulari banda un convenio de colaboración (2022SHIT0019) con vigencia hasta el 31 de diciembre de 2024.

Que el Ayuntamiento mediante dicho convenio le tiene cedido a TXANBOLIN Urnietako txistulari banda el 4º Box y el almacén de la zona BOX del Polideportivo para el desarrollo de sus actividades.

Que Txanbolin Urnietako txistulari banda está preparando la celebración del 50 aniversario de la asociación para los días 20-21-22 de octubre del 2023 y el acto central será un concierto en el que participarán 200 personas.

Que para conceder dicha subvención es necesario establecer las condiciones de la misma.

Que lo expuesto previamente requiere la modificación del convenio en vigor para introducir las siguientes

**CLAUSULAS**

**Objeto de la modificación del Convenio**

El objeto de esta modificación es incluir un anexo al convenio firmado el 8 de marzo de 2023 entre el Ayuntamiento de Urnieta y Txanbolin Urnietako Txistulari Banda.

En el anexo, se detalla la colaboración entre la asociación y el Ayuntamiento de Urnieta con motivo del 50º Aniversario de su creación.

**ANEXO**

**Subvención**

El Ayuntamiento de Urnieta subvencionará en 2023 a la Asociación para la celebración del 50º aniversario, concretamente las siguientes acitvidades:

- Un concierto
- Un pasacalles especial

El importe de la subvención será de 13.000,00 **€** con cargo a la partida presupuestaria 1 0410.481.334.00.20.2023 (3363)**.**

Esta subvención no finaciará gastos de inversión.

**Forma de pago**

El primer pago de la subvención será del 75% y se realizará a la firma de la modificación del

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

denean egingo da.

Gainerako % 25a elkarteak diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da, 2023ko azaroaren 30a baino lehen. Justifikazioa aurkezteko, Udalak berariaz horretarako prestatutako inprimakiak erabiliko dira.

Justifikazio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu: diru-laguntzaren xede diren jardueren deskribapen zehatza, lortutako estaldura (artatutako pertsona kopurua, emakumeak, gizonak, adina, erabilitako hizkuntza…) eta lortutako emaitzen ebaluazioa.

Memoriak jarduera osoaren balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) jasoko ditu, eta diruz lagundutako jardueren gastu guztiaren egiaztagiriak ere, horien zerrenda xehatuarekin batera..

Gastuen egiaztagiriak: fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ondoriozko gastuei eta sarrerei dagozkienak.

Faktura edo dokumentu baliogabe oro ez da kontuan hartuko jasotako diru-laguntza justifikatzeko orduan.

**Aseguroak**

Elkarteak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu beharko du, elkartearen ekintzek edo ez-egiteek hirugarren pertsonengan eragin ditzaketen kalteak estaltzeko.

Aseguratutako gutxieneko kapitala 90.000€ eurokoa izango da.

**Aurreko xedapenak berrestea**

Dokumentu honetan azaltzen ez den guztirako 2023ko martxoaren 8an sinatutako hitzarmena aplikatuko dela adostu da.

Eta bi alderdiak ados daudela erakusteko, hitzarmen aldaketa hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako egunean eta tokian.

Antton Jauregi Aranburu

TXANBOLIN URNIETAKO TXISTULARI BANDA

Fede ematen dut,

convenio.

El 25% restante se pagará una vez que la Asociación presente la justificación de la subvención antes del 30 de noviembre del 2023. La justificación se presentará utilizando los impresos específicamente preparados para ello por el Ayuntamiento.

La memoria justificativa deberá incluir una descripción detallada de las actividades objeto de subvención llevadas a cabo, la cobertura alcanzada (nº de personas atendidas, mujeres, hombres, edad, idioma utilizado…), junto con la evaluación de los resultados obtenidos.

La memoria incluirá el balance económico (gastos e ingresos) de toda la actividad y los justificantes de todo el gasto de la actividad subvencionada junto con una relación detallada de los mismos.

Los justificantes de gasto serán facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente, con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, que correspondan a los gastos e ingresos derivados de la realización de la actividad subvencionada.

Toda factura o documento no valido no se tomará en cuenta a la hora de justificar la subvención percibida.

**Seguros**

La asociación deberá contratar una póliza de seguro de responsabilidad civil para la cobertura de los daños que las acciones u omisiones de la Asociación pueda provocar en terceras personas.

El capital mínimo asegurado será de 90.000€ euros.

**Ratificación de anteriores estipulaciones**

Se acuerda que para todo lo que no esté expuesto en este documento, será de aplicación el convenio firmado el 8 de marzo del 2023.

Y en prueba de conformidad ambas partes firman la presente modificación por duplicado ejemplar en la fecha y lugar del encabezamiento.

Jorge Segurado Iriondo

URNIETAKO UDALA

Doy fe,

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte**:**
**2023ITGB0008**

Idoya Arévalo Benito, Idazkaria

Idoya Arévalo Benito, Secretaria

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

**III ERANSKINA / ANEXO III**

| URNIETAKO UDALAREN ETA XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA | MODIFICACION DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA Y LA XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEA |
|---|---|

Urnieta, 2023ko xxxxaren xa

**BILDURIK**

Batetik, Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Alkate,

Bestetik, Joseba Ubillos Cipitria jauna, adinez nagusia. Ondorio hauetako helbidea: Goiburu bailara, zk:38, 20130 Urnieta, eta Nortasun Agiria 72499095J, XOXOKA-GOIBURUKO AUZO ELKARTEAren (hemendik aurrera, Elkartea) Lehendakaria.

Ni, Idoia Arévalo Benito. andrea, Urnietako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela.

**PARTE-HARTZAILEAK**

Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (San Juan, 5; IFK: P2007700D), Kultura Teknikaria gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak …………an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena.

Joseba Ubillos Cipitria jauna, Elkartearen izenean eta ordezkari gisa. Elkartea Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea GOIBURU AUZOA 34 20130 URNIETA da, eta bere IFK G20989810. Joseba Ubillos Cipitria jaunak Elkartearen lehendakari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikuluaren arabera.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

Elkarteak, bere Estatutuen arabera, xedetzat du bizilagunek eskatutako edozein aktibitate

Urnieta, xx de xxxxx de 2023

**REUNIDOS**

De una parte, Don Jorge Segurado Iriondo, Alcalde de Urnieta

De otra parte, don Joseba Ubillos Cipitria mayor de edad, con domicilio a estos efectos en Goiburu bailara, zk:38, 20130 Urnieta, y con Documento Nacional de Identidad 72499095J Presidente de XOXOKA-GOIBURUKO AUZO ELKARTEA (de aquí en adelante, la Asociación).

Ante mí, D.ª Idoia Arévalo Benito Secretaria del Ayuntamiento de Urnieta.

**INTERVIENEN**

Don Jorge Segurado Iriondo en nombre y representación del Ayuntamiento de Urnieta, con domicilio en San Juan 5, y con CIF P2007700D, interviene en su condición de Iñaki Otamendi Gutierrez y facultado para este acto por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha ……….

Don Joseba Ubillos Cipitria, en nombre y representación de la Asociación, entidad inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, con domicilio en GOIBURU AUZOA 34 20130 URNIETA y NIF G20989810. Don Joseba Ubillos Cipitria interviene en su condición de presidente, y, en consecuencia, como representante legal de la Asociación, al amparo del artículo 15 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Se reconocen mutuamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto,

**EXPONEN**

La Asociación, de acuerdo con sus Estatutos, tiene como finalidad la de impulsar y fomentar

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

soziokultural bultzatzea eta sustatzea, dagozkien arazoez jabe daitezen eta hauek konpontzeko hartu beharreko neurrietan parte har dezaten bermatzea, auzoko bizilagunen artean harremanak, komunikazioa eta elkarbizitza bermatzea, auzoko bizilagun eta Udaletxearen arteko lotura izan arazoak bideratzea eta hobekuntza proiektuak garatzea eta herriko biztanle bezala, dagozkien esparruetan partehartze aktibo eta arduratsua bideratuko dituen moduak ezartzea.

Urnietako Udalak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen 2021eko martxoaren 30ean Elkartearekin (2021SHIT0017), 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin, hitzarmen horren bidez, dirulaguntza ematen dio urtero, bere jarduerak garatzeko eta Tsusakako Eskola zaharra lagata dio.

Aurten, Xoxoka-Goiburu Auzo Elkarteak jaietatik kanpoko jardueren programazioa indartzeko beharra ikusten du.

Aurretik adierazitakoak indarrean dagoen hitzarmena aldatzea eskatzen du, honako klausula hauen arabera:

**KLAUSULAK**

**Hitzarmenaren aldaketaren xedea**

Aldaketa honen xedea da eranskin bat gehitzea Urnietako Udalak eta Elkarteak 2021eko martxoaren 30ean sinatutako hitzarmenari.

Eranskinean zehazten da Elkartearen eta Urnietako Udalaren arteko lankidetza Elkarteak jaietatik kanpoko jardueren programazioa indartu ahal izateko.

**ERANSKINA**

**Diru-laguntza**

Urnietako Udalak dirulaguntza emango dio Elkarteari 2023an ekintza hauek egiteko: azti baten emanaldia, komikien antzezpena, Garbiñe Larrearen liburuaren aurkezpena eta ipuin kontalari bat.

Diru laguntza honek ez ditu inbertsio gastuak finantzatuko.

cualquier actividad sociocultural demandada por los vecinos y vecinas para que sean conscientes de los problemas existentes y participen en las medidas a adoptar para solucionarlos, garantizar las relaciones, la comunicación y la convivencia vecinal, canalizar los problemas y desarrollar proyectos de mejora que sirvan de nexo entre los vecinos y vecinas del barrio y establecer formas de participación activa y responsable en los ámbitos pertinentes como habitantes del municipio.

El Ayuntamiento de Urnieta firmó el 30 de marzo de 2021 con la Asociación un convenio de colaboración (2021SHIT0017) con vigencia hasta el 31 de diciembre de 2024, mediante el cual le otorga anualmente una subvención para el desarrollo de sus actividades y le tiene cedida la antigua escuela de Tsusaka.

En el año en curso Xoxoka-Goiburu Auzo Elkartea ve la necesidad de reforzar la programación de actividades fuera del periodo festivo.

Lo expuesto previamente requiere la modificación del convenio en vigor para introducir las siguientes:

**CLAUSULAS**

**1. Objeto de la modificación de convenio**

El objeto de esta modificación es incluir un anexo al convenio firmado el 30 de marzo de 2021 entre el Ayuntamiento de Urnieta y la Asociación.

En el anexo se detalla la colaboración entre la Asociación y el Ayuntamiento de Urnieta para que la Asociación pueda reforzar la programación de actividades fuera del periodo festivo.

**ANEXO**

**Subvención**

El Ayuntamiento de Urnieta subvencionará a la Asociación para realizar las siguientes actividades en 2023: actuación de un mago, representación de cómics, presentación del libro de Garbiñe Larrea y un cuentacuentos.

Esta subvención no financiará gastos de inversión

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

Diru laguntza honen zenbatekoa 1.391€-koa izango da 1 0410.481.334.00.13 2023 (2521) aurrekontu partidaren kargura.

**Ordaiketa mota**

Dirulaguntzaren lehenengo ordainketa % 75ekoa izango da, eta hitzarmenaren aldaketa sinatzean egingo da.

Gainerako %25a Elkarteak diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da. Hitzarmen aldaketa honetan gehitutako ekintzen zuriketa 2023ko memorian sartuko da, bertan ezarritako baldintza berdinetan.

**Hitzarmenaren aldaketa indarrean jartzea**

Aldaketa, formalizatzen den egunean jarriko da indarrean.

**Aurreko xedapenak berrestea**

Dokumentu honetan azaltzen ez den guztirako 2021eko martxoaren 30ean sinatutako hitzarmena aplikatuko dela adostu da.

Eta ados daudela adierazteko, bi alderdiek hitzarmen aldaketa honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako egunean eta lekuan.

El importe de esta subvención será de 1.391€ con cargo a la partida presupuestaria 1 0410.481.334.00.13 2023 (2521)

**Forma de pago**

El primer pago de la subvención será del 75% y se realizará a la firma de la modificación del convenio.

El 25% restante se pagará una vez que la Asociación presente la justificación de la subvención. La justificación de las actividades financiadas mediante esta modificación se incluirá en la memoria del 2023.

**Entrada en vigor de la modificación**

La modificación entrará en vigor en la fecha de su formalización.

**Ratificación de las anteriores estipulaciones**

Se acuerda que para todo lo que no esté expuesto en este documento, será de aplicación el convenio firmado el 30 de marzo de 2021.

Y en prueba de conformidad ambas partes firman el presente convenio por duplicado ejemplar en la fecha y lugar del encabezamiento.

Joseba Ubillos Cipitria,
XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEA

Jorge Segurado Iriondo
URNIETAKO ALKATEA

Fede ematen dut,
Idoya Arévalo Benito, Idazkaria

Doy fe,
Idoya Arévalo Benito, Secretaria,

ESKUf29f069a-f94e-4b96-8f95-ab1bd6afbf53

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0008**

## IV ERANSKINA / ANEXO IV

| URNIETAKO UDALAREN ETA MANTTALE KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA | CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA Y MANTTALE KULTUR ELKARTEA |
|---|---|
| Urnieta, 2023ko xxren xa | Urnieta, xx de xx de 2023 |
| **BILDURIK** | **REUNIDOS** |
| Batetik, Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Alkatea, | De una parte, Don Jorge Segurado Iriondo, Alcalde de Urnieta |
| Bestetik, XXXXXXXXXXXXXXX jauna, adinez nagusia. Ondorio hauetako helbidea duena Azkorte kaleko 7 zk., 3-B, 20130 Urnieta; eta Nortasun Agiria: XXXXXXXX. duena MANTTALE KULTUR ELKARTEAren izenean. | De otra parte, Don XXXXXXXXXXXXX, mayor de edad, con domicilio a estos efectos en Azkorte kalea nº 7, 3-B, 20130 Urnieta y con Documento Nacional de Identidad, XXXXXXXX y en nombre de MANTTALE KULTUR ELKARTEA |
| **PARTE-HARTZAILEAK** | **INTERVIENEN** |
| Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (San Juan, 5; IFK: P2007700D), gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak …………an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena. | Don Jorge Segurado Iriondo en nombre y representación del Ayuntamiento de Urnieta, con domicilio en San Juan 5, y con CIF P2007700D, interviene en su condición de y facultado para este acto por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha ………. |
| XXXXXXXXXXXXXXX jauna, bere helbidea AZKORTE KALEA 7, 03-B 20130 URNIETAn duena, eta bere IFK XXXXXXXX. | Don XXXXXXXXXXXXXXX, con domicilio en AZKORTE KALEA 7, 03-B 20130 URNIETA y NIF XXXXXXXX. |
| Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau | Se reconocen mutuamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto, |
| **ADIERAZTEN DUTE** | **EXPONEN** |
